

zakilixut

© Olariagak



«Nahiago txikiteoa botilatzarra baino»

■ Botilatzarra edaten aritu al zara inoiz?

Inoiz ere ez.

■ Txikiteoa ibiltzen al zara?

Bai, bai. Gainera, gustukoa dut lagunekin txikiteoa aritzea.

■ Botilatzarrak hilko al du txikiteoa?

Batek daki. Botilatzarra indartsu dabil. Espero dezagun ez gertatzea.

■ Gasteizko Udalak dio bere hirian oso botilatzar gutxi dagoela. Gazte politika egoikiagatik ala eguraldi kaskarragatik?

Seguru asko lotura handiagoa izango du eguraldiarekin egiten den gazte politikarekin baino.

■ Espainiako Gobernuaren arabera, poliziakide gehiagorekin konponduko da botilatzarraren arazoa.

Poliziakide eta isun gehiago jartzea guretzat ez da gazte politika egitea. Horri gazteen aurkako jazarpena iruditzen zaigu.

■ EAEko Gazte Plana «hiriko erdiko klaseko gizon batek idatzi du». Zuk esana da.

Planaren zirriborroan agertzen diren neurri guztiak hiriko mutil gazteentzat dira. Zorionez, guz-

tion artean akats hori zuzentzen ari gara, pixkanaka.

■ Zuen kritikak aintzat hartuko dituztela uste duzu?

Baietz uste dut. Beharko!

■ Bestela...

Bestela, herri honetan gauza gehiegi galduko dira, galduko ditugu guztiok.

■ Lehen emakumezkoa zara EAEko Gazte Kontseiluko lehendakaritza. Antzematen al da zure erabakietan?

Hala izatea espero dut. Baina hori ezin dut nik esan; besteek esan beharko dute.

■ Aukeratu zintuztenean, PPko gazteek kontseilua utziko zutela esan zuten, EGIkoa zinela eta.

Lehen kritikatzin nindutenek orain eskertzen dute egindako lana.

■ Nolanahi ere, Euskal Herriko eskauten izenean zaude Kontseiluan.

EGIkoa izan nintzen. Orain benetan naizena eskauta da.

■ Hogeita hamar urterekin oraindik Baden-Powellen jarraitzaile?

Beti ez duzu egon behar paper bera betetzen. Gauza ezberdinak egin daitezke. Ni beti nago

KATE MOTZEAN

Juan Kruz Lakasta

LEIRE CARIDAD

EAE-KO GAZTE KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

Portugalete, 1971. Lan Harremanetako diplomaduna. Sei urte daramatza Kontseiluan lanean. EGIko kide ohi eta Euskal Herriko Eskautetako ordezkari. Dioenez, sekula ez du botilatzarrik edan.



«Inguruko gizarteak eta gurea gero eta berdinagoak dira»

taldeari laguntzeko prest. Joan den urtean, adibidez, udako kanpaldian sukaldaria izan naiz.

■ Barkatu atrebentzia, baina ez al zara zaharregia gazteen lehendakari izateko?

Bai. Horregatik, aurten utzi behar dut.

■ Non dago gaztetasunaren muga ofiziala zuen erakundeetan?

Legez, hogeita hamar urtetan.

■ Pena. Nik 31 ditut. Ezin al da luzapenik egin?

Nik, adibidez, baneukan aukera segitzeko, baina iruditzen zait nahikoa izan dela Kontseiluan egin dudana.

■ Karguaz jabetzeaz, xede nagusiak bakea eta enplegua zirela esan zenuen: oker gabiltza.

Gu, gutxienez, alor horietan gauzak egiten ari gara.

■ Euskal gazte mugimendua «askotarikoa eta bizia» dela diozu. Benetan al dabil horren bizi?

Bizirik dago, baina arazoetan. Guztion artean jarri beharko dugu konponbidea.

■ Nondik datozkio arazoak?

Hezkuntzan bilatu beharko genuke gakoa. Gizarte hau eta ingurukoak gero eta berdinagoak dira, batez ere ez hain onak diren gauzetan. Ez dugu jakin gure gauza onei eusten.

■ Hego Euskal Herrian Operación Triunfo-k ikusle kopururik handienak lortu ditu.

Agian, abestea gustatzen zaigulako izango da.

■ Jendeak badaki zenbat kilo galdu dituen Rosak, baina ez daki zenbat kilo galdu dituzten Segiko gose grebalariek.

Gazteak diren heinean eta beren helburuen alde lan egiteko elkartu nahi duten heinean, helburu horiek bidezkoak badira, utzi behar diete elkartzen, lan egiten.



Megadenda, zure aukera musika eta liburutan

arriaga

Gasteiz

bertso-hop

Irun

bilintx

Donostia
Tolosa
Bergara

herriak

Bilbo

mattin

Baiona

ramos

Donostia

urretzindorra

Bilbo

xalbador

Iruña

xalem

Iruña